## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

368

**4/2004 FORU AGINDUA, urtarrilaren 14koa. Honen bidez, Arrazua-Ubarrundiako udalerriaren Planeamenduko Ordezko Arauen aldaketari buruzko espedientea onartzen da, hain zuzen Zirianoko 2-131-309, 123-18 eta 371-14 lurzatien aldaketari buruzkoa.**

I.- AURREKARIAK

Urriaren 17an Hirigintza eta Ingurumen Saileko diputatuak eman zuen 216/03 foru aginduaren bitartez, behin betiko onarpena eman zitzaion Arrazua-Ubarrundiako udalerriaren Planeamenduko Ordezko Arauen aldaketari buruzko espedienteari, hain zuzen Zirianoko 2-131-309, 123-18 eta 371-14 lurzatien aldaketari buruzkoari.

Foru Agindu horren betebeharrekotasuna aitortzeko, berriz, bertan zehaztutako aldaketak sartu behar ziren espedientean.

2003ko abenduaren 30ean Arrazua-Ubarrundiako udalak espedientearen testu bategina igorri zuen foru aldundira, betearaztekoa zela aitor zezan.

II.- OINARRIAK

Igorritako agiriak aztertu dira eta egiaztatu da foru aginduan xedatutakoa betetzen dutela. Hau da, agindu horrek zehaztutako aldaketak jasotzen dituztela.

Horregatik guztiagatik, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Hirigintza eta Ingurumen Saileko diputatuak urriaren 17an emandako 216/2003 Foru Aginduan ezarritako baldintzak betetzat ematea. Foru agindu horren bitartez, behin betiko onartu zen Arrazua-Ubarrundia udalerriko Planeamenduko Ordezko Arauen aldaketari buruzko espedientea, hain zuzen 2-131-309, 123-18 eta 371-14 lurzatien aldaketari buruzkoa.

Bigarren.- Foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

Hirugarren.- Foru agindu honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, beronen aurka ondoko edozein errekurtso jarri ahal izango da, baita interesdunek egoki deritzon beste edozein neurri abiarazi ere:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoa baino lehenago, interesatuek berraztertze errekurtsoa eta beste administrazio batzuek errekerimendua jar dezakete, ebazpena hartu duen erakunde berberaren aurrean, hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratu ondoko egunetik kontatzen hasita".

Vitoria-Gasteiz, 2004ko urtarrilaren 14a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

368

**ORDEN FORAL 4/2004, de 14 de enero, por la que se aprueba definitivamente el expediente de Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Arrazua-Ubarrundia, referente a las parcelas 2-131-309, 123-18 y 371-14 de Ziriano.**

I.- ANTECEDENTES

Mediante Orden Foral número 216/03, de 17 de octubre, del Diputado de Urbanismo y Medio Ambiente, se aprobaba definitivamente el expediente de revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Arrazua-Ubarrundia referente a las parcelas 2-131-309, 123-18 y 371-14 de Ziriano.

La ejecutoriedad de la citada Orden Foral, no obstante, quedaba condicionada a la introducción en el expediente de las modificaciones que se señalaban en la misma.

Con fecha 30 de diciembre de 2003, el Ayuntamiento de Arrazua-Ubarrundia ha remitido a la Diputación el texto refundido del expediente a fin de que fuera declarada la ejecutoriedad del mismo.

II.- FUNDAMENTOS

Analizada la documentación remitida se observa que la misma ha dado cumplimiento a lo dispuesto en la Orden Foral de aprobación definitiva, habiéndose recogido las modificaciones señaladas en la misma.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Dar por cumplidas las condiciones impuestas en la Orden Foral número 216/03, de 17 de octubre del Diputado de Urbanismo y Medio Ambiente, por la que se aprobaba definitivamente el expediente de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Arrazua Ubarrundia referente a las parcelas 2-131-309, 123-18 y 371-14 de Ziriano.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponer cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estime procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso, contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma."

Vitoria-Gasteiz, a 14 de enero de 2004.– El Diputado de Urbanismo y Medio Ambiente, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

502

**6/2004 FORU AGINDUA, urtarrilaren 14koa, Burgeluko Udal Planeamenduaren Ordezko Arauetako Añuako SAUR-1 Sektoreko Plan Partzialaren espedienteari buruzkoa.**

AURREKARIAK

Lehena.- Alkatearen 2003ko irailaren 5eko ebazpen baten bidez Burgeluko udalak Añuako SAUR1 Sektoreko Plan Partzialari hasierako onarpena ematea erabaki zuen, baita espediente hori hogei egun jendaurrean jartzea ere. Horretarako guztirako iragarki bana argitaratu ziren Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean (106 zenbakia, 2003ko irailaren 12a) eta El Correo egunkarian (2003ko irailaren 13a). Halaber, jabeei zuzenean jakinarazi zitzaien.

Bigarrena.- Jendaurrean egon zen bitartean alegazio bat aurkeztu zen. Alegazioa Antonio Iñiguez de Heredia jaunak, Santa Luzia Ureztatzaileen Elkartearen idazkariak, izenpetua zen. Burgeluko udalaren zerbitzu teknikoek alegazio horren berri eman ondoren, udalbatzak 2003ko azaroaren 5eko bilkuran, alegazioa onartzea erabaki

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

502

**ORDEN FORAL 6/2004, de 14 de enero, en relación con expediente de Plan Parcial del Sector SAUR-1 de Añua de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Elburgo.**

ANTECEDENTES

Primero.- Mediante Resolución de la Alcaldía de 5 de septiembre de 2003, el Ayuntamiento de Elburgo acordó la aprobación inicial del Plan Parcial del Sector SAUR-1 de Añua, así como someter el expediente a información pública por el plazo de veinte días, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 106 de fecha 12 de septiembre de 2003, en el diario El Correo de 13 de septiembre de 2003 y notificación personal a los propietarios.

Segundo.- Durante el período de información pública fue presentada una alegación suscrita por don Antonio Íñiguez de Heredia en calidad de Secretario de la Comunidad de Regantes de Santa Lucía. Tras ser informada por los servicios técnicos del Ayuntamiento de Elburgo, el Pleno, en sesión del día 5 de noviembre de 2003, acor-

zuen, bai eta espedienteari behin-behineko onarpena ematea eta espedientea Arabako Foru Aldundira bidaltzea ere, behin betiko onar zezaten. Aldundian 2003ko abenduaren 5ean sartu zen.

OINARRIAK

Lehena.- Plan Partzial honek Añuako SAUR-1 sektorea zehatz-mehatz antolatzen du. Sektore horren kalifikazioa eta sailkapena, Burgeluko Ordezko Arauen arabera, bizitegietarako eta urbanizatzeko lurzoru egokia dira.

Bigarrena.- Jasotako dokumentazio teknikoa indarren dagoen hirigintza legerian ezarritakoarekin eta Ordezko Arauekin alderatu ondoren, beren artean ez dagoela kontraesanik ikusi da.

Hirugarrena.- Aurrekoa alde batera utzita, espedientean hainbat akats edo hutsune daude eta horiek zuzendu egin behar dira.

Lehenengo hutsunea 13. Ordenantzan (Familia bakarreko etxebizitza) ezarritako parametroari buruzkoa da. Izan ere, ordenantzak honakoa dio hitzez hitz: “Lurzatiaren gutxieneko azalera eta gehieneko batez besteko eraikigarritasuna errespetatuko dira beti”, eta, Memoriaren 8.4 eta 8.5.3. puntuetan parametro horiek aipatzen badira ere, ordenantzetan ez da horri buruz ezer arautzen.

Laugarrena.- Bestalde, aurkeztutako dokumentazioan ez da bermatzen sustatzailearen eta udalaren arteko konpromisoa, hau da, zerbitzuak ezartzeko gutxi gorabeherako kostuaren %6 a ordaintzeko konpromisoa zehazki betetzen dela.

Bosgarrena.- 9. Paragrafoan (“Urratsen plana”) honakoa zehazten da: “urbanizazioa egiteko urtebete egongo da gehienez, Urbanizazio Proiektua onartzen den egunetik aurrera”. Eta honakoa gaineratzen da: “urbanizazio egin ondoren bi urte egongo dira eraikitzeko eskubidea lortzeko”

Proposamen horiek anbiguoak dira; beraz, 5/98 Legearen 8. eta 9. Artikuluetan ezarritakoak baino handiagoak ez direnean bakarrik beteko dira epe horiek.

Horregatik guztiagatik, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Behin betiko onarpena ematea Burgeluko udal planeamenduko ordezko arauetan jasotako Añuako SAUR-1 sektorearen Plan Partzialerako Construcciones A. Castillo S.L. enpresak sustatu eta Burgeluko udalak izapidetu duen espedienteari, ondoko zehaztapenak sartu ostean:

A- Sustatzailearen eta udalaren arteko konpromisoa, hau da, sektorea urbanizatzeko lanen kostuaren %6a ordaintzeko konpromisoa zehazki betetzen dela bermatzea.

B- Araudian honako parametroak sartzea: lurzatiaren gutxieneko azalera eta gehieneko batez besteko eraikigarritasuna.

C- “Urratsen plana” izeneko paragrafoan honakoa zehaztea: urbanizazioa gauzatzeko epea eta eraikitzeko obra baimena eskuratzekoa, gehienez, ezingo dira 5/98 Legearen 8. eta 9. artikuluetan ezarritakoak baino handiagoak izan.

Bigarrena.- Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan, berriro jendaurrean jarri gabe, zuzenean igorriko zaio foru aldundiari espedientea betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarren.- Foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoa baino lehenago, interesatuek berraztertze errekurtsoa eta beste administrazio batzuek errekerimendua jar dezakete, ebazpena hartu duen erakunde berberaren aurrean, hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratu ondoko egunetik kontatzen hasita”.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko urtarrilaren 14a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

dó estimar la alegación, aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava, para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 5 de diciembre de 2003.

FUNDAMENTOS

Primero.- El presente Plan Parcial ordena pormenorizadamente el sector SAUR-1 de Añua, clasificado y calificado por las Normas Subsidiarias de Elburgo como Suelo apto para urbanizar residencial.

Segundo.- Confrontada la documentación técnica aportada con la legislación urbanística vigente y las Normas Subsidiarias se ha comprobado que no existen contradicciones entre ellas.

Tercero.- No obstante lo anterior, hay en el expediente unas deficiencias o lagunas que deben ser subsanadas.

La primera afecta al parámetro establecido en la Ordenanza 13 “Vivienda Unifamiliar”. Efectivamente, en ella textualmente se dice: “Se respetará siempre el parámetro de superficie mínima de parcela y la edificabilidad media máxima”; y, si bien en los puntos 8.4 y 8.5.3 de la Memoria hay alusiones a tales parámetros, las Ordenanzas no regulan nada al respecto.

Cuarto.- Por otra parte, la documentación aportada no contiene las garantías del exacto cumplimiento de los compromisos a contraer entre el promotor y el Ayuntamiento, por importe del 6% del coste estimado de implantación de los servicios.

Quinto.- En el apartado 9, “Plan de Etapas”, se especifica que “el plazo máximo para la urbanización es de un año desde la aprobación del Proyecto de Urbanización”; igualmente se añade: “Una vez realizada la Urbanización se prevé un plazo de dos años para adquirir el derecho a edificar”.

Tales propuestas resultan ambiguas, por lo que ha de entenderse que tales plazos operarán siempre y cuando no se rebasen los establecidos en los artículos 8 y 9 de la Ley 5/98.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Plan Parcial del Sector SAUR-1 de Añua, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Elburgo, promovido por Construcciones A. Castillo S.L., y tramitado por el Ayuntamiento del citado municipio, con las siguientes determinaciones que deberán ser incorporadas a aquél:

A- Aportar las garantías del exacto cumplimiento de los compromisos a contraer entre el promotor y el Ayuntamiento, por importe del 6% del coste estimado de las obras de urbanización del sector.

B- Incorporar a la normativa los parámetros de superficie mínima de parcela y edificabilidad media máxima.

C- Especificar en el apartado de “Plan de Etapas” que los plazos máximos establecidos para la ejecución material de la urbanización y la obtención de la licencia de obras de edificación no podrán rebasar los establecidos en los artículos 8 y 9 de la Ley 5/98.

Segundo.- Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estime procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso, contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.”

Lo que se publica para general conocimiento.

Vitoria-Gasteiz, a 14 de enero de 2004.– El Diputado de Urbanismo y Medio Ambiente, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.